Kartetan jokatzen



Jarduera honetan ariketa hauek egin ditzakezu:
- Audio bat entzun eta ondo ulertu duzun jakiteko, galdera batzuei erantzun.
- Erreparatu kartetan hitza zer aditzekin erabiltzen den eta esaldiak osatu.
- Kartetan jokatzen inguruan, gustuak, iritziak eta esperientziak partekatu.

euskadi irratia

Erantzun galderei

Audioa entzun aurretik, pentsatu pixka bat gaiaren inguruan eta komentatu lagunekin:
- Zuk ba al daukazu kartetan jokatzeko ohiturarik? Zertan ibiltzen zara?

Orain entzun audioa eta erantzun galdera hauei. Ondoren, konparatu zure erantzunak eredukoekin.

1, Urteko zer sasoitan saltzen dituzte kartak gehien? _____

2. Zein da EHko karta-jokorik ezagunena? _____

3. Idatzi aipatu dituzten karta-jokoak? _____

4. Zertarako balio dute kartek? _____

5. Kartetan ari direnean, zer jokatzen dute Zestoako eguneko zentroan? _____

Kartetan jokatu ala jolastu?

Begiratu audioko azken esaldiari:
- ***Eta kartetan jolastu ez, kartetan jokatu egiten dugu.***

Hortaz, ez dugu esan behar ‘kartetan jolastu’, baizik eta ‘kartetan jokatu'. Erreparatu ondoko taulari:

Kartetan jokatu

Jokatuz gain, aditz hauekin ere erabiltzen da: **ari izan, egin, ibili**
- Kartetan ibiliko al gara?
- Afaldu ondoren, musean egin genuen saio bat.
- Gabonetan goizeko hirurak arte aritu ginen kartetan.
- Ez zait gustatzen kartetan jokatzea.

Orain osatu esaldi hauek (batzuk audiotik hartutakoak dira), falta diren hitzak aukeratuz.

1- Ba al dago gaur egun _____ edo joaten al da inor kartak erostera?

2- Hamaika jolas desberdin daude _____ , baina Euskal Herrian ezagunena musa da.

3- Ikusten dugu ez zaiela denei gustatzen _____

4- Etxe askotan tradizio-kontua da: familiatik dator _____

5- Kartetan _____ , kartetan _____

6- Gure amonak-eta igandero _____

7- Martxa honetan _____ ahaztu behar zaigu.

kartetan ibiltzeko ohitura
jokatu egiten dugu
jolastu ez
jokatzeko ohiturarik
kartetan aritzeko
aritzen ziren kartetan
kartetan jokatzea
kartetan jokatzen

Kartetan

Jarri talde txikian eta komentatu puntu hauek:
- Gustuko al duzu kartetan jokatzea? Noiz egiten duzu kartetan?
- Zer iruditzen zaizu kartetan dirua jokatzea?
- Zer karta-jokotan dakizu jokatzen? Kontatu zure gustuko bat nola jokatzen den.



***Esaterako**:*
- Guk Gabonetan urtero jokatzen dugu kartetan; gainerakoan, batere ez.
- Nik uste dut zenbait jokotan dirua jokatzea beharrezkoa dela, bestela ez daukate graziarik.
- Niri asko gustatzen zitzaidan familiak osatzen izeneko jokoa. Ezagutzen al duzue? Ba, begira, honela jokatzen da: ...

Zuzenketa-orria

Erantzun galderei

Urteko zer sasoitan saltzen dituzte kartak gehien? (Udan eta Gabonetan)

2. Zein da EHko karta-jokorik ezagunena? (Musa)
3. Idatzi aipatu dituzten karta-jokoak? (Musa, punttuan eta eskoba)
4. Zertarako balio dute kartek? (Apustuak egiteko edo dirua jokatzeko, denbora pasatzeko eta lagun artean gustura egoteko.)
5. Kartetan ari direnean, zer jokatzen dute Zestoako eguneko zentroan? (Txapela, afari bat)

Kartetan jokatu ala jolastu?

1- Ba al dago gaur egun (jokatzeko ohiturarik) edo joaten al da inor kartak erostera?

2- Hamaika jolas desberdin daude (kartetan aritzeko), baina Euskal Herrian ezagunena musa da

3- Ikusten dugu ez zaiela denei gustatzen (kartetan jokatzea)

4- Etxe askotan tradizio-kontua da: familiatik dator (kartetan ibiltzeko ohitura)

5- Kartetan (jolastu ez), kartetan (jokatu egiten dugu)

6- Gure amonak-eta igandero (aritzen ziren kartetan)

7- Martxa honetan (kartetan jokatzen) ahaztu behar zaigu.

Transkripzioa

ESATARIA. Kartak eskuan eta joko eta lagunarteari lotzen dizkiogu bereziki. Ba al dago gaur egun jokatzeko ohiturarik edo joaten al da inor kartak erostera? Zarauzko Marian estankoan egiten du lan Anitzek, eta berak kontatu digunez apur bat jaitsi bada ere oraindik badago kartak erosteko joera.
ANITZE. Nik uste ohitura mantendu e(g)in dela. Bai, egia da urtean zehar izaten di(r)ela tenporadak bezala, ezta? Adibidez, gehien saltzen dugu udaran eta Gabonetan. Udaran nik uste izango dela, bueno ba, hondartza(ra) eta joateko, entrenimendu moduan edo hola; edo, gero ere bai, denbora libre gehiago egoten da, ba umeekin eta dena. Eta gero Gabonetan ba etxe askotan ohitura handia dago kartetan jokatzeko. Bi momentu horiek izaten dira urtean zehar karta gehien saltzen duguna.
ESATARIA. Hamaika jolas desberdin daude kartetan aritzeko, baina jendeari galdetuta denek antzekoak aipatu dizkigute. Badirudi Euskal Herrian ezagunena musa dela.
ELKARRIZKETATUA 1. 10 urte nituenerako kartetan e(g)iten nu(e)n: punttuan eta musean. Horiek dira nire, nire karta-jokoak horiek dira, eta eskoban.
ELKARRIZKETATUA 2. Nire inguruan behintzat musa, eta gero ere bai, badaude joko berri batzuk baina, egia esan, ez ditut asko ezagutzen. Baina nik uste dut hemen, Euskal Herri mailan, edo Gipuzkoa mailan behintzat, sozietateetan gehien jolasten dena izango dela musa.
ELKARRIZKETATUA 3. Musa oso, oso hedatuta dagoela baina, egia esan, harrigarria dirudi agian, baina ez zait batere gustatzen kartetara jolastea.
ESATARIA. Ikusten dugu ez zaiela denei gustatzen kartetan jokatzea, eta beste etxe askotan, berriz, tradizio-kontua da: familiatik dator kartetan ibiltzeko ohitura. Baina ez da beti apustu-kontua, denbora-pasa eta lagunarte politak sortzeko balio dute kartek.
Zestoako Eguneko Zentrora gerturatu gara eta hemen ez dira musean aritzen, puntuan baizik. Hiru karta hartu eta pasada bakoitzean balio handiena duen karta botatzen duenak jasotzen du uzta. Amaieran karta gehien dituena da garaile. Mus-txapelketetan ez bezala, Zestoan ez dute dirurik jokatzen.
ELKARRIZKETATUA 1. Normalean, punttuan. Afizioa bakarrik gastatzen dugu. Gure artean, konkurtsoak jokatzen ditugu punttuan. Premioa? Ba txapela eta, afari bat eta… Hola izaten dira.
ELKARRIZKETATUA 4. Lagunartean ere bai, baina gu sozietatean eta afariak eta egiten ditugunean ba hortxe, 10 bat euro bota eta, txapelketa bat edo, geuk organizatzen dugu eta!
ESATARIA. Dirua, txapela, afaria… Ezin ukatu Euskal Herrian jokorako joera handia dugunik. Eta kartetan jolastu ez, kartetan jokatu egiten dugula.